

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

“Mikoturismo Egunak” 2019ko pintxo lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak onestea

Amurrio Bidean (toki garapenerako Amurrioko Udalaren sozietatea) sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, “Mikoturismo Egunak” 2019ko pintxo lehiaketaren sariak arautzen dituzten oinarriak onetsi zituen.

1. Parte hartzaileak

Lehiaketan, Amurrioko edozein establezimenduk parte har dezake, edozein dela ere bere sailkapena edo kategoria (taberna, kafetegi, jatetxe, ostatu...), , lehiaketan parte hartzeko izena epe barruan ematen badu eta oinarri hauek onartzen baditu.

2. Data

2019ko urriaren 26 eta 27a, eta azaroaren 2, 3, 9 eta 10a; hiru asteburu.

3. Pintxoak

Lokal bakoitzak pintxo bakarra aurkez dezake. Lehiaketara aurkeztutako pintxoak aurreko artikuluan adierazitako egunetan egin beharko dira, eta jendeak dastatzeko moduan egon beharko dira, gutxienez, ordutegi honetan: 12:00-14:00, Ordutegi hori ez betetzeak lehiaketatik kanpo geratzea ekarriko du. Pintxo guztiek lehiaketaren etiketa-logoa eduki beharko dute. Lehiaketan parte hartzen duten lokalek nahitaez jarri beharko dute onddoekin egindako pintxoaren XIV. Lehiaketaren kartel ofiziala, lehiaketan parte hartzen dutela egiaztatzeko. Parte hartzaileei dohainik eskainiko zaie lehiaketaren inguruko publizitate material guztia. Ostalariek pintxo kopuru nahikoa egin beharko dute lehiaketak sortutako eskariari aurre egiteko.

4. Prezioa

Ostalari bakoitzak erabakiko du pintxo bakoitzaren prezioa, baina inola ere ez ezingo da izan 2,5 euro baino gehiago.

5. Inskripzioak

Inskripzioak Amurrio Bidean, toki garapenerako sozietatearen egoitzan, egingo dira:

- helbidea: el refor z/g
- tel.: 945 891 721
- e-mail: turismo@amurriobidea.org.

Aurkezteko epea 2019ko irailaren 4an, asteazkena, amaituko da.

Izena ematen duten ostalari guztiek 50 euro ordaindu beharko dituzte inskripzio moduan, hori erabaki baitzuten antolatzaileek eta ostalariek 2012ko irailaren 18ko koordinazio bileran. Parte hartzaileen inskripzio kuoten batura izango da pintxo onenaren hautaketan parte hartzen duten herritarrei emango zaien saria.

2019ko irailaren 25ean, 16:30ean, udaletxean, establezimendu bakoitzak lehiaketara aurkeztutako pintxo bat emango die antolatzaileei, izenarekin batera; horrela, argazkiak atera eta liburuxka egin ahal izateko. Pintxo hori lehiaketan zehar zerbitzatuko denaren berdina izan beharko da. Horrela ez balitz, lehiaketatik kanpo geratuko da.

6. Epaimahaia

EPAIMAHAI TEKNIKOA

Amurrio Bidean sozietateak aukeratutako hiru pertsonak osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaiak honakoak hartuko ditu kontuan: zaporea, aurkezpena, osagaiak, lana, sormena eta orijinaltasuna.

Egokitzat jotzen badu, lehiaketatik kanpo uzteko ahalmena izango du.

Edonola ere, lehiaketak irauten dituen hiru asteburutan, epaimahaikideak parte hartzen duten establezimenduetara joango dira pintxoak dastatzera eta baloratzera.

Epaimahaiaren erabakia ezingo da aurkaratu. Epaimahai teknikoaren erabakia 2019ko azaroaren 12an, asteartean, jakinaraziko da.

HERRITARREN EPAIMAHAIA

Herritarrek euren pintxo gustukoenari bozka eman ahal izango diote, bozketa orria betez. Herritarren bozketan parte hartu nahi dutenek bozketa txartela jaso beharko dute lehiaketan parte hartzen duten establezimenduetan edo turismo bulegoan. Txarteletan, espazio bat dago tabernek zigilua jartzeko, pintxoa dastatu izanaren seinale, eta beste bat, bozka ematen zaion tabernaren izena idazteko. Beharrezkoa da lehiaketara aurkezten diren pintxoaren ehuneko 60 dastatzea, gutxienez, bozkatzeko. Kultura etxean, udaletxean eta udal pilotalekuan hiru boto-ontzi jarriko dira, behar bezala identifikatuta eta zigilatuta, bertan txartelak sartzeko.

Lehiaketa horretan parte hartzen dutenen artean, zozketa egingo da.

- Aurkeztutako pintxoaren ehuneko 60, gutxienez, dastatu eta zigilatu duten pertsonak sari hauek lortu ahal izango dituzte: inskripzioetatik lortutako zenbatekoa zati 1,2 edo balio bereko sari gehiago, baina sari bakoitzaren zenbatekoa ezingo da 300 eurotik gorakoa izan.

Antolatzaileek boto-ontziak azaroaren 11 eta 12an jasoko dituzte, eta lehiaketaren emaitza establezimendu irabazleari azaroaren 12an jakinaraziko diote. Gainera, Amurrioko Udalaren web orrian eta Amurrio Bidean sozietatearen web orrian jakinaraziko da, baita bi erakundeen sare sozialetan ere eta Hauxe Da udal buletinaren.

7. Sariak

- Pintxorik onena, epaimahaiaren arabera: 200 euro eta plaka.
- Pintxorik onena, herritarren arabera: 150 euro eta plaka.

8. Ez betetzea

Lehiaketaren oinarrietako bat ez betetzeak deskalifikazioa ekarriko du. Antolatzaileek beziki hartuko dute kontuan lehiaketan parte hartzen duten pintxoak jendearen eskura egotea lehiaketak iraun bitartean, ezarritako ordutegian.

Amurrio, 2019ko maiatzaren 23a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA